

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko irailaren 3ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Erabakiak:**

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 542/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea Moldiztegiko material berezien hornitzaileak homologatzeko esparru akordioa prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea, 410.160 euroko gehieneko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arteko gauzatzeko epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 543/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea International Business Machines, S. A. (I. B. M.) enpresari esleitzea AFaren mainframe plataforma teknologikoaren errentamendua, 11.482.547,34 euroan (BEZa barne) eta 3 urteko gauzatzeko epearekin, ekainaren 18ko 390/2019 Erabakiaren bidez deitutako publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren ondorioz.

Foru Gobernu Kontseiluaren 544/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea esparru akordio bat egiteko deialdia, prozedura ireki bidezkoa, segurtasun kopien plataforma komunerako Commvault-eko backup softwarearen lizentzien hornitzailea eta mantentzailea homologatzeko.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 545/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea Forondako Jauregia (Gasteizko 3 poligonoko 393 lurzatia) zuzenean besterentzea Promociones Morgoitio SL enpresari.

LURRALDE OREKA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 546/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integrala egiteko informatika sistema bat erosteko eta haren mantentze lanak egiteko 2019ko kontratuaren aldaketa.

BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 547/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea Arabako foru errepide sarearen (mendebaldea) zaintza integrala egiteko zerbitzuaren kontratua aldatzea 2017-2019, zeina "UTE Álava Oeste 2017: Api Movilidad, SA, Esconsu, SL eta Firmes Alaveses, SA" aldi baterako enpresa elkarteari esleitu baitzitzaion.

Foru Gobernu Kontseiluaren 548/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea "Arabako Lurralde Historikoan eskaeren arabarako bidaiarien garraio zerbitzua" ren likidazioa eta fiantzak itzultzea. Loteak: Añana (ekialdea), Añana (hegoaldea), Arrastaria-Urduña, Aiara, Kuartango, Mendialdea (ekialdea), Mendialdea (iparraldea), Mendialdea (hegoaldea), Zuia (iparraldea) eta Zuia (mendebaldea).

Foru Gobernu Kontseiluaren 549/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea "Eraikuntza proiektua, A-3218 errepidearen trazadura hobetu eta plataforma hedatzekoa 71,54 kilometro puntutik (A-124 errepidearekiko gurutzadura) 77,84 kilometro puntura (A-3228 errepidearekiko

gurutzadura, Bilarren)” proiektuaren lanen likidazioa, prezioek izandako igoera, prezioen berrikuspena eta jarritako bermea itzultzea.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 550/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea Kontseiluaren otsailaren 19ko 8/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako basogintza laguntzen deialdiaren ebazpen partziala, neurri hauei dagokienez: M08.4. neurria “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea” eta M08.6 neurria “Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea” titulartasun partikularreko mendietan.

KULTURA ETA KIROLA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 551/2019 Erabakia, irailaren 3koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez eskola kirola garatzeko dirulaguntzen deialdiaren (2018/2019 ikasturtea) ebazpena.